

**PRESTAKUNTZA JARDUERARAKO DEIALDIA. 2011-2012KO PRESTAKUNTZA PLANA. PRESTAKUNTZA ATALA**

**Izenburua:** Zientzia ikasgelan. CSIC erakundearekin proiektuak egiten hastea: magnetismoa.

**Modalitatea:** Mintegia

**Etapia:** Haur eta Lehen Hezkuntza.

**Nori zuzendua:** Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleei.

**Justifikazioa:**

Zientziak errealitatea aztertzen du eta hori hobeki ulertzeko balio du, baita eguneroko arazo batzuk konpontzeko ere. Horrek erraztu egiten digu bizitza. Eskolako etapan garrantzitsua da lortzea ikasleek metodo zientifikoa zientzien zati bereizteaz jotzea, eta zientziak horren bidez lantzeko ohitura hartzea. Horretarako, irakasleek metodo hori ezagutu eta erabili behar dute beren lanean.

Eskolako esparruaren barnean zientzien irakaskuntzaz mintzatzean, behin eta berriz aipatu behar da ezagutza teorikoak bezain garrantzitsuak direla praktika eta esperimendazioa, horiek esanguratsu bilakatzen baitute ikaskuntza.

Irakasleoi zientzia interesatzen zaigu errealitatea hobeki ulertzeko eta azaltzeko, kultur ondare bezala, eta zientzia eta teknologia modernoek duten garapen azkarrean eguneratuta izateko. Halaber, zientzia globalak Fisikaren ekarpena behar du, eta hori ezin da bazterrean utzi eguneroko problemei eta galderei erantzuteko ikerketa egiten denean.

**Helburuak:**

1. Hasierako hezkuntza etapetako irakasleen prestakuntza hobetzea zientzien arloan, era horretan ikasleen prestakuntza zientifikoa egin ahal izan dezaten.
2. Irakasleei estrategiak eta baliabideak ematea, ikasleak ezagutza zientifikoa lantzen has daitezen.
3. Mintegian jorratutako gaien buruzko unitate didaktikoak edo proiektuak egitea.
4. Modu sistematikoan esperimendatzea behin-behineko proposamen horiek.
5. Horien hautaketa egitea eta CD batean biltzea.
6. Egindako esperientziak ahoz komunikatzea.

**Edukiak:**

1. Metodo zientifikoa.
2. Magnetismoa.

**Metodologia:**

1. fasea (10 ordu): Urrian hasiko dira CSIC-ko adituekin egiten diren saioak. Hiru orduko bi saio izanen dira eta lau orduko beste bat. Bertan aurkeztuko da lanean erabiliko den metodologia, lanaren jarraibide zehatzak seinalatuko dira eta edukietan sakonduko da, modu teorikoan zein praktikoan. Fitxa "eredu" bat eskuragarri jarriko da *on line*, unitate didaktikoak/proiektuak dokumentatzeko. Lan taldeak zikloka eta/edo zentroka

antolatuko dira (zentro txikiak baldin badira edo zikloko talderik ez badago, taldea duen eta parte hartzen duen hurbileko zentro batekin elkartuko dira).

2. fasea (2 ordu): Aurreko ikastaroetan prestakuntza jarduera egin duen ikasgeletako irakasleek beren esperientziak eta planteamendu didaktikoak erakutsiko dituzte. Horretarako, mintegiko edukia irakaskuntzan aplikatzeko erabili duten prozesua azalduko dute. Mintegian parte hartzen duten ILZetan egingen da saio hau.
3. fasea (20 ordu): Mintegiaren garapena hasiko da, proposamenak eginez, 1. fasean adostutako metodologia aplikatuz eta ikasgelan praktikara eramanez.
4. fasea (3 ordu): Lantalde bakoitzak gainerako kideei azalduko die mintegian egindako lana.
4. faseak burutu ondoren, egindako unitate didaktiko eta proiektu guztiak jasoko dira.

Kurtso/Ziklo/Zentro bakoitzeko koordinatzaileak jasoko ditu fitxak, hautaketa eta laburpena egingen ditu, eta aholkulariari bidaliko dizkio (e-postaz), horrek balora ditzan.

### **Hizlariak:**

Eskolako CSIC taldea

**Deialdiaren egilea:** Iruñeko ILZ (ILZ guztientzat irekia).

### **ILZko aduraduna:**

- Iruña (Marivi López) Tel.: 948 291725, posta elektronikoa: primaria2.cap.pamplona@educacion.navarra.es

### **Beste ILZ batzuekin egin beharreko koordinazioa:**

- Lizarra (Javier Zabala)
- Lekaroz (Miguel Ustariz)
- Tafalla (M<sup>a</sup> Jesús López)
- Tuteria (Maria Alegre)

### **Lekua:**

Iruñeko ILZ.

**Iraupena:** 35 ordu

### **Bertaratu beharreko saioen egunak eta orduak:**

Hizlariekin egingen diren saioak, bertaratu beharrekoak:

Martxoan: 20, 21 eta 22.

Astearte eta ostegunetan: 17:30etik 20:30era

Asteazkenetan: 16:30etik 20:30era

Beste ikastaroetako esperientziak azalduko dituzten maisuekin egingen da saioa (bertaratu beharrekoa):

Martxoan: 26. Astelehenean 17:30etik 19:30era

Azkeneko saioa (bateratze-lana):

Maiatzean: 30 (asteazkena). 16:30etik 19:30era.

**Izena emateko epea:** 2012eko otsaiaren 2ko martxoaren 9etara.

**Leku kopurua:** 50

**Gutxieneko parte-hartzaile kopurua:** 25

**Parte-hartzaileak hautatzeko irizpideak:**

- IntegraTIC proiektua duten zentroetako irakasleak
- Zentroko taldeak, etapa artekoak. (Haur + Lehen Hezkuntza)
- Zentro bereko etapa edo ziklo taldeak.
- Izena emateko hurrenkera.

**Hizkuntza:** Gaztelaniaz

**Oharrak:**

Prestakuntza jarduera honetarako eskabideak ezarritako epearen barnean egin beharko dira, ILZko web orrian.

Jardueran onartutakoen zerrenda webgune horretan argitaratuko da, martxoaren 12an, astelehena.

Edozein arrazoi dela eta, onartutako pertsona bat prestakuntza jarduerara joatekoa ez bada, ILZri jakinarazi beharko dio jarduera hasi baino lehen, bere tokia beste pertsona batek har dezan. ILZk berak hautatuko du pertsona hori.

Talde bakoitzeko koordinatzaileendako ziurtagiria "koordinatzaile" gisa emanen da, ez, ordea, "bertan egondako pertsona" gisa.

Ekarpen berriak euskarri informatikoan egingen dira, Word formatuko testuan, eta paperean egindako materiala ez da onartuko.

CSIC-ko edo ILZko webguneetan argitaratzeko gai izan daitezkeen lanak aurkezten badira, PPT, bideo eta halako euskarrietan aurkeztuko dira.

**Ziurtagiria eta bertaratzea:**

- Hizlariekin egingen diren bertaratu beharreko saioen %80ra joan beharko da.
- Taldean lan egiteko saioen %80ra joan beharko da.
- Lana eman eta aurkeztu beharko da, mintegian zehaztutako jarraibideen arabera.



**Nafarroako Gobernua**  
Hezkuntza Departamentua

Taxoare k., 14 A  
31008 IRUÑA  
Tel.: 948 291722  
[cappamplona@pnte.cfnavarra.es](mailto:cappamplona@pnte.cfnavarra.es)



Iruñeko ILZ.  
CAP. Pamplona